

BESTELAKO XEDAPENAK

GOBERNANTZA, ADMINISTRAZIO DIGITAL ETA AUTOGOBERNUAREN SAILA

2847

63/2026 EBAZPENA, ekainaren 17koa, Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariarena, zeinaren bidez argitara ematen baita Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalarekin eta Itsasoko Gizarte Institutuarekin sinatutako lankidetza-hitzarmena, estatistikaren alorrekoa.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak aipatu den lankidetza-hitzarmena sinatu du, eta, behar bezalako publikotasuna emateko, hau

EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.— Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalarekin eta Itsasoko Gizarte Institutuarekin sinatutako lankidetza-hitzarmena, estatistikaren alorrekoa. Lankidetza-hitzarmen hori ebazpen honen eranskin gisa agertzen da.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko ekainaren 17a.

Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendaria,
JON IÑAKI URBINA GARCÍA DE VICUÑA.

ERANSKINA, JAURLARITZAREN IDAZKARITZAKO ETA LEGEBILTZARRAREKIKO
HARREMANETARAKO ZUZENDARIAREN EKAINAREN 17KO 63/2026 EBAZPENARENA

HITZARMENA, GIZARTE SEGURANTZAKO INSTITUTU NAZIONALAREN, ITSASOKO
GIZARTE INSTITUTUAREN ETA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAREN ARTEKOA,
ESTATISTIKAREN ALORREKOA

BILDU DIRA:

Alde batetik, María del Carmen Armesto González-Rosón andrea, Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalaren zuzendari nagusia, haren izenean eta hura ordezkatzuz, urtarrilaren 21eko 131/2020 Errege Dekretuaren bidez izendatua (urtarrilaren 22ko BOE), Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 48.2 artikuluan aurreikusitako atribuzioen arabera, bere karguaren arabera, eta Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalaren egitura organikoa eta egitekoak eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorra partzialki aldatzen dituen abenduaren 13ko 2583/1996 Errege Dekretuaren 5. artikulua ematen dizkion ahalmenak erabiliz.

Bestetik, Elena Martínez Carqués andrea, Itsasoko Gizarte Institutuko zuzendaria (Inklusio, Gizarte Segurantza eta Migrazioen ministroaren irailaren 7ko ISM/986/2021 Aginduaren bidez izendatu zuten), haren izenean eta hura ordezkatzuz, Itsasoko Gizarte Institutuaren egitura organikoa eta eginkizunen apirilaren 8ko 504/2011 Errege Dekretuak 7.2 artikuluan esleitzen dizkion eskumenak betez eta Sektore Publikoko Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legeak 48.2 artikuluan adierazitakoari jarraikiz.

Bestetik, Euskal Autonomia Erkidegoaren izenean, Belén Muñoz Villanueva andrea, Eustat-Euskal Estatistika Erakundearen (aurrerantzean, Eustat) zuzendari nagusi izendatua, 2024ko urriaren 1eko 291/2024 Dekretuaren bidez, erakunde horren izenean eta hura ordezkatzuz, Euskal Autonomia Erkidegoko Estatistikari buruzko apirilaren 23ko 4/1986 Legeak esleitzen dizkion eskumenen arabera, eta Gobernu Kontseiluak ekitaldi honetarako berariaz baimenduta, 2026ko apirilaren 14an egindako bilkuran.

Alderdiek hitzarmen hau sinatzeko gaitasun nahikoa aitortu diote elkarri, eta hau

ADIERAZI DUTE:

Bat.– Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalaren (aurrerantzean, GSIN) egitura organikoari eta funtzioei buruzko abenduaren 13ko 2583/1996 Errege Dekretuan, 1.a) artikuluan, Institutuari esleitu zaio Gizarte Segurantzako sistemako prestazio ekonomikoak jasotzeko eskubidea onartu eta kontrolatzeko eskumena, kontribuzioen modalitatean; horrela ezarri da Gizarte Segurantzaren Lege Orokorreko testu bateginaren 66.1.a) artikuluan (urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartu zen). Bestalde, 1.2.d) artikuluan, Sozietate Publikoen Prestazioen Erregistroa kudeatzeko eta haren funtzionamendua zaintzeko eskumena esleitu zaio. Erregistro hori, hain zuzen, Zerga, Administrazio eta Gizarte arloetako neurriei buruzko abenduaren 30eko 42/1994 Legearen 30. artikulua bidez sortu zen, eta martxoaren 1eko 397/1996 Errege Dekretuaren bidez arautu.

Halaber, uztailaren 3ko 6/2018 Legeak, 2018rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzkoak, ehun eta berrogeita batgarren xedapen gehigarriaren hirugarren apartatuan, GSIN-ri esleitzen dio Txartel Sozial Digitalaren euskarri-erregistroa eta sistema informatikoa administratzea, kudeatzea eta mantentzea.

Bi.— Itsasoko Gizarte Institutuaren (aurrerantzean, IGI) egitura organikoari eta funtzioei buruzko apirilaren 8ko 504/2011 Errege Dekretuan, 3.1.a) artikuluan, Institutuari eman zaio itsasoko langileek Gizarte Segurantzako Erregimen Bereziko prestazioak jasotzeko eskubidea dutela aitortzeko eta prestazio horiek kudeatu eta administratzeko eskumena.

Hiru.— Euskal Autonomia Erkidegoko Estatistikari buruzko apirilaren 23ko 4/1986 Legeak estatistika publikoaren arloko eginkizunak ezartzen ditu, Euskal Autonomia Erkidegorako interesgarri den estatistika-jarduera publikoaren garapen antolatua arautu eta sustatzeko.

Lau.— Informazioa estatistika-helburuetarako lagatzeak honako xedapen hauetan du oinarria:

– Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren 25. artikulua, estatistika-funtzio publikoaren eremuko datuen tratamenduarena:

«1.— Estatistika eginkizun publikoa duten organismo eskudunek datu pertsonalen tratamendua egiten dutenean, tratamendu hori legeria espezifikoa xedatutakoaren arabera egingo da, bai eta 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduak, pertsona fisikoen datu pertsonalen babesari eta datuon zirkulazio askeari buruzkoak, eta lege organiko honek xedatutakoaren arabera ere.

2.— Ulertuko da estatistika arloko organo eskudunei datuak 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 6.1 e) artikulua babespean eman zaizkiela, informazioa zer estatistikarako eskatzen den, estatistika hori Europar Batasuneko zuzenbideko arauak horrela egiteko exijitzen badu edo legeetan aurreikusitako estatistika-programazioko tresnen barruan badago.

Estatistika Eginkizun Publikoaren maiatzaren 9ko 12/1989 Legearen 11.2 artikulua xedatutakoaren arabera, 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 9. eta 10. artikuluek jasotzen dituzten datuak ukituek beren borondatez emango dituzte, eta, ondorioz, haien berriazko adostasuna dagoenean baino ezingo dira bildu.

3.— Estatistika-eginkizun publikoa betetzeko organismo eskudunek uko egin ahalko diete 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 15.etik 22. artikulura artekoak xedatutako egikaritze-eskabideekin lorturik ukituek egindako eskabideei, Estatuko legeriak edo autonomikoak aurreikusitako sekretu estatistikoaren bermeen babespeko datuak direnean.»

– Legedia autonomikoan zehazten dira, edo lege ezarritako estatistika-programazioko tresnen barnean, zer datu lagatu behar dituen eta erabiliko dituen autonomia-erkidegoak azterlan eta ikerlan estatistikoetan.

– Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa garatzen duen Erregelamendua onartzeko abenduaren 21eko 1720/2007 Errege Dekretuaren 10.4.c) artikulua, non eta ez dion aurka egiten, edo ez datorren bat, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduan, pertsona fisikoen datu pertsonalen babesari eta datuon zirkulazio askeari buruzkoan eta 95/46/EE Zuzentaraua indargabetzekoan (datuen babeserako erregelamendu orokorra), eta abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan xedatutakoari.

– Uztailaren 7ko 13/2022 Legearen azken xedapenetako bigarrenak, bost, aldatu duen Funtzio Estatistiko Publikoari buruzko maiatzaren 9ko 12/1989 Legearen 15.1 artikulua arabera, «estatistika-sekretuak babesten dituen datu pertsonalak administrazioek eta organismo publikoek estatistikaren ondorioetarako elkarri jakinarazteko, honako baldintza hauek bete beharko dira

nahitaez, eta datuok zaintzen dituen zerbitzuak edo organoak egiaztatu beharko du baldintzok betetzen diren:

a) Datuon hartzaile diren zerbitzuek funtzio funtsean estatistikoak egitea, eta hala araututa egoitea datuok laga aurretik.

b) Datuen xedea, hain zuzen ere, zerbitzu horiek esleituta dituzten estatu-helburuetarako estatistikak egitea izatea.

c) Informazioaren hartzaile diren zerbitzuek sekretu estatistikoa gordetzeko beharrezko diren baliabideak edukitzea».

Bost.– Zehazki, Euskal Autonomia Erkidegoak behar duen informazioa GSIN-ren titulartasuneko Sozietate Publikoen Prestazioen Erregistroan edo Txartel Sozial Digitalean dago, eta identifikazio- eta pentsio-datuetan dago egituratuta.

Sei.– Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legeak, 141. artikuluan, administrazio publikoen arteko lankidetzeta-betebeharra ezartzen du, eta 1.c) apartatuan, beste administrazioei beren eskumenak gauzatzean garatzen duten jarduerari buruz behar duten informazioa emateko betebeharra. Gainera, 142. Artikuluaren arabera, Lankidetzeta-betebeharretik ondorioztatzen diren betebeharrak honako teknika hauen bidez gauzatuko dira:

«a) Eskaera jaso duen organismo publiko edo entitateak eskueran dituen informazio, datu, dokumentu edo frogabideak ematea, baldin eta administrazio eskatzaileak halakoak eduki behar baditu bere eskumenak baliatzeko.

b) Lankidetzan aritzea, informazio-sistema integratu batean sartzeko herritarren arlo pertsonalizatuak edo karpetak, edo haien funtzionalitate jakin batzuk, interesdunak bere eduki, jakinarazpen edo funtzionaltasunak eskuratu ahal izan ditzan, datu pertsonalen osotasuna eta konfidentzialtasuna bermatzen duten prozedura seguruen bidez, sarbide-puntua edozein dela ere.

c) Administrazio publikoen arteko lankidetzarako plataforma digitala garatzea, konferentzia sektorialen sistema osatzen duten organoen eta, oro har, lankidetzeta-organoen harremanak eta euskarri elektronikoa errazteko tresna gisa, bai eta administrazio publiko guztien eremuan datuak trukatzeko beste plataforma komun batzuen ere.

d) Administrazio-informaziorako sistema integratuak sortu eta mantentzea, datu eguneratu, oso eta iraunkorrak edukitzeko Estatuko lurralde osoko administrazio-jardueraren eremuei buruz.

e) Laguntza- eta sorospen-eginbeharra, beste administrazio batzuek beren eskumenak hobeto baliatzeko formulatutako eskaerei arreta eskaintzearen; bereziki, haien administrazio-jardueraren ondoreak beren lurralde-eremutik kanpo hedatzen badira.

f) Lege batean aurreikusitako beste edozein.»

Zazpi.– Testuinguru horretan, alderdien ordezkariak, bere helburuak betetzeko, beharrezkotzat jotzen dute informazioa aldizka trukatzeko sistema egonkor bat ezartzea, GSIN-ren titulartasuneko fitxategietan (Gizarte Prestazio Publikoen Erregistroan edo Txartel Sozial Digitalean) jasotako informazioa helburu estatistikoekin aprobetxatzeko.

Ondorioz, xede publikoak betetzeko elkarrekin lan egin behar dutela onartuta, alderdiek hitzarmen hau sinatzea erabaki dute. Hona hemen klausulak:

KLAUSULAK

Lehenengoa.— Hitzarmenaren xedea.

Hitzarmen honen xedea lankidetzaz-esparru egonkor bat ezartzea da Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalak (aurrerantzean, GSIN) eta Itsasoko Gizarte Institutuak (aurrerantzean, IGI) kudeatzen duten informazioa Euskal Autonomia Erkidegoari helburu estatistiko hutsekin lagatzeko, haren edukiari, baldintzei eta prozedurei dagokienez. Hain zuzen, informazioa Sozietate Publikoen Prestazioen Erregistroan dago jasota, edo Txartel Sozial Digitalean, eta GSIN da horren titularra.

IGI, itsasoko langileen Gizarte Segurantzako Erregimen Berezia kudeatzen duen erakundea den aldetik, ados dago Gizarte Prestazio Publikoen Erregistroan edota erregimen horretako Gizarte Txartel Digitalean jasotako datuak Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalak lagatzearekin.

Bigarrena.— Alderdien betebeharrak.

A) GSIN-renak:

Eranskinean adierazten den informazioa Euskal Autonomia Erkidegoari eskuratzea hiru hilean behin.

Tresnak eta lagako diren fitxategien diseinuen zehaztasunak izan ditzaketen aldaketak ere hitzarmen honen bosgarren klausulan aurreikusitako Jarraipen Batzorde Mistoak baloratu eta erabakiko ditu.

Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren 25.2 artikulua aplikatuz, informazioa osasunari buruzko datuen ingurukoa denean, hala nola ezintasun iraunkorrari edo edozein desgaitasuni buruzkoa, antzeko edo behar bezala anonimizatutako beste datu batean sartuta emango da, aipatutako pertsonak ez direla identifikatuko bermatzeko; izan ere, datu bereziki sentikorrek direnez, interesdunen beraiazko baimena behar da hirugarrenei laga ahal izateko. Artikulu horrek, era berean, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 9. eta 10. artikuluetara jotzen du (erregelamendu hori datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa da, eta 95/46/EE Zuzentaraua (Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra) indargabetzen du). Artikulu horien arabera, datu horiek estatistika-helburuetarako erabil daitezke, Batasuneko edo estatu kideetako Zuzenbidean oinarrituta, eta helburuarekiko proportzionala izan behar du, datuak babesteko eskubidea funtsean errespetatuz, eta interesdunaren oinarritzko eskubideak eta interesak babesteko neurri egokiak eta espezifikoak ezarri behar ditu.

Eranskineko informazioa telematikoki lagako da eta hiruhileko bakoitzaren azken eguna izango da erreferentzia-data.

Datuak hornitzeko euskarriari dagokionez, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 44.4 artikuluan ezarritakoa beteko da (administrazio publikoen arteko komunikazio-ingurune itxietan datuak elektronikoki trukatzeari buruzkoan), eta, nolanahi ere, ingurune itxiaren segurtasuna eta transmititzen diren datuen babesa bermatuko dira.

Gainera, 2018rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko uztailaren 3ko 6/2018 Legearen ehun eta berrogeita batgarren xedapen gehigarrian ezarrita dagoenez, Txartel Digital Soziala

sortu behar da, administrazio publikoek gizarte-babeseko politikak hobetzeko eta koordinatzeko informazio-sistema izan dadin. Hori horrela, GSINk, Txartel Sozial Digitala elikatzen duen sistema informatikoa administratu, kudeatu eta mantentzeko ardura duenez, aipatu sisteman jasotako informaziorako sarbidea eskaini eta bermatuko dio Euskal Autonomia Erkidegoari.

B) Euskal Autonomia Erkidegoarenak (Eustat):

GSIN-ri urtero jakinaraztea hitzarmen honetan aurreikusitako datuak beharrezkoak diren plan-gintza- eta programazio-tresnetan jasotako jarduera zehatzak.

Gainera, hitzarmen honen eranskinean jasotako informazioa estatistika-asmoz ematen denez, Euskal Autonomia Erkidegoa arduratuko da, beharrezko diren kontrolak ezarriz, informazioaren erabileran datu pertsonalen babesa erabat bermatzeaz, Funtzio Estatistiko Publikoari buruzko maiatzaren 9ko 12/1989 Legearen 13. artikuluan eta Euskal Autonomia Erkidegoko Estatistikari buruzko apirilaren 23ko 4/1986 Legearen 19. artikuluan arautzen den moduan.

Euskal Autonomia Erkidegoa arduratuko da GSIN-k lagatzen duen informazioa bere erregistroetan sartzeko egin behar diren prozesu guztiez, beste iturri batzuetako informazioa araztu eta osatzeko, eta, behar izanez gero, zuzenean erabiliko du bere diseinuak aplikatuta estatistika-ustiapenak gauzatzeko.

Euskal Autonomia Erkidegoak egoki iritzitako emaitzak zabaldu eta argitaratu ahal izango ditu, Euskal Autonomia Erkidegoko Estatistikari buruzko apirilaren 23ko 4/1986 Legearen 17. eta 18. artikuluetan xedatutakoarekin bat etorriz, eta betiere abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren manurik urratu gabe.

Lagatzen eta tratatzen diren datuak, eranskinean jasotakoak, isilpekoak eta sekretuak izango dira, eta, beraz, Euskal Autonomia Erkidegoak konpromisoa hartzen du izaera horri zorrotz eusteko eta informazioan aipatzen diren pertsona fisiko eta juridikoen eskubideak babesteko, horien anonimotasuna bermatuko duten prozedurak ezarriz, 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduan eta 2018ko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan aurreikusitakoaren arabera.

Autonomia-erkidegoak onartu eta bere egiten du datuen lagapena hitzarmen honetan zehaztutako helburu eksklusiboetara mugatzen dela, eta datuen xedea, hain zuzen ere, zerbitzu horiek 12/1989 Legearen 15. artikuluan ezarritakoaren arabera esleitura dituzten estatistikak egitea dela; beraz, datuak bestela erabiltzea sinatutako hitzarmenaren ez-betetzetzat hartuko da, eta horrek GSIN-ri eta IGIri kasuan kasuko erantzukizunak eskatzeko ahalmena emango die.

Autonomia-erkidegoa izango da bermatzailea GSIN-ren eta IGIren aurrean, bai eta hirugarrenen aurrean ere, lagatako datuak erabiltzaileek behar ez bezala erabiltzearen ondoriozko edozein erreklamaziotan, eta Gizarte Segurantzaren erakunde kudeatzaileak horri loturiko erantzukizun orotik salbuetsiko ditu.

Hirugarrena.– Finantzaketa.

Hitzarmen honetan aurreikusten diren ekintzek ez dute kosturik sortuko, eta ez dute ekarriko alderdien arteko kontraprestazio finantzariorik.

Laugarrena.– Datuak babesteko eta informazioaren segurtasunerako klausula.

Alderdiek adosten dute hitzarmen hau betez egiten den datu pertsonalen tratamendua, hala badagokio, datu pertsonalen babesaren arloan indarrean dagoen araudian xedatutakoaren arabera arautuko dela, bereziki:

a) 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 EB Erregelamendu Orokorra, datuak babesteari buruzkoa (DBEO);

b).3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa;

c)15/1999 Lege Organikoa garatzeko Erregelamendua, abenduaren 21eko 1720/2007 Errege Dekretuaren bidez onartua, aplikagarria den guztian;

d)2018rako Estatuaren Aurrekontu Orokorren uztailaren 3ko 6/2018 Legearen ehun eta berrogeita batgarren xedapen gehigarriaren seigarren paragrafoa;

e) Baita gai honetan aplikagarria den beste edozein araudi ere.

Tratamenduaren eta trukaturako datuen izaeraren arabera, alderdi bakoitzak tratamenduaren arduradun gisa jardungo du, bere eskumenen esparruan kudeatzen dituen datuei dagokienez.

Alderdiek konpromisoa hartzen dute hitzarmen honen bidez eskuratzen duten edozein datu pertsonal isilpean gordetzeko, baita hitzarmenaren indarraldia amaitu ondoren ere.

Era berean, arriskuari egokitutako segurtasun-maila bermatzeko neurri tekniko eta antolaketa-neurri egokiak hartzeko konpromisoa hartu dute alderdiek, DBEOren 32. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

Gainera, Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalak (GSIN) informazioaren segurtasunari buruz onartutako protokoloetan xedatutakoa aplikatuko da, bai eta Gizarte Segurantzako Informazio Sistemien Segurtasun Batzordeak ezarritako informazio-sistemarako sarbide eta erabilera seguruko arauak ere.

Bosgarrena.— Jarraipen Batzorde Misto.

Jarraipen Batzorde Misto sortu da, eta honako ordezkari hauek izango ditu:

1.— GSIN-ren ordezkariak:

a) Prestazioak Kudeatzeko Zuzendariordetza Nagusiaren titularra.

b) Prestazioak Kudeatzeko Zuzendariordetza Atxikiaren titularra.

2.— IGIren ordezkariak:

a) Itsasoko Langileen Gizarte Segurantzako Zuzendariordetza Nagusiaren titularra.

b) Itsasoko Langileen Gizarte Segurantzako Zuzendariordetza Nagusiaren arloko titularra.

3.— Euskal Autonomia Erkidegoaren ordezkariak (Eustat):

a) Eustaten Ekoizpen eta Analisi Estatistikorako Zuzendariordetzaren titularra.

b) Aholkularitza Juridikoko Zerbitzuaren arduraduna.

Hona hemen eginkizunak:

1.— Hitzarmen hau behar bezala gauzatzeko beharrezko diren jarduerak koordinatzea, bereziki, informazioa trukatzeko prozedura eraginkorrenak ezarriz, bai eta emandako datuen babesa bermatuko duten neurriak ere, eta tresnak izan ditzakeen aldaketak eta lagatako fitxategiei dagozkien diseinuen xehetasunak ere koordinatzea.

2.— Hitzarmen hau interpretatzean edo betetzean sor daitekeen edozein desadostasun edo eztabaida ebatzea.

Aldeetako edozeinek eskatuta bilduko da Jarraipen Batzorde Misto, aztertu beharreko gaiek edo inguruabarrek hala eskatzen dutenean, eta egindako lankidetzaren emaitzak eta gorabeherak

aztertzeko. Batzordearen ohiko funtzionamendua urrutikoa izango da, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 17.1 artikuluan aurreikusitakoaren arabera, hargatik eragotzi gabe Batzordeko kideren batek eskatzen duenean aurrez aurreko bilkuretarako deialdia egitea.

Batzordearen funtzionamendua eta araubide juridikoa, klausula honetan ezarrita ez dagoen orotan, urriaren 1eko 40/2015 Legearen Atariko Tituluaren II. kapituluko 3. atalean kide anitzeko organoen funtzionamenduari buruz xedatutakoak arautuko du.

Seigarrena.– Indarraldia.

Hitzaumen honek lau urteko iraupena izango du eta, aldez aurretik Estatuko sektore publikoko Lankidetzaren Organo eta Tresnen Estatuko Erregistro Elektronikoa inksribatuta, 2026-06-13an izango da eraginkorra. Data hori sinatzaileek 2022-06-13an sinatutako hitzaumenaren indarraldia amaitu ondorengo egunari dagokiona izango da.

Halaber, Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, urriaren 1eko 40/2015 Legearen 48.8 artikuluan xedatutakoaren arabera.

Hitzaumena luzatu ahal izango da, baldin eta alderdiek aho batez hala adosten badute hitzaumena amaitu aurretik, beste lau urtez gehienez, urriaren 1eko 40/2015 Legearen 49.h) artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

Zazpigarrena.– Aldaketa eta suntsiarazpena.

Urriaren 1eko 40/2015 Legearen 49.g) artikuluaaren arabera, hitzaumen honen edozein klausula aldatzeko, beharrezkoa izango da sinatzaileek aho batez erabakitzea. Honela, Jarraipen Batzorde Mistoak beharrezko eguneratze edo aldaketak proposatuko dizkie alderdiei, eta sinatzaileek dagokion ituna sinatuko dute, zeina eranskin bidez formalizatu beharko baita, lege ezarritako betekizunekin bat etorri eta urriaren 1eko 40/2015 Legearen 50. artikuluan aurreikusitako aldez aurreko baimenarekin.

Hitzaumen hau azkendu egingo da hitzaumenaren xede diren jarduketak betetzen direnean edo azkentzeko arrazoiren bat dagoenean, urriaren 1eko 40/2015 Legearen 51.1 artikuluan xedatutakoari jarraikiz.

Urriaren 1eko 40/2015 Legearen 51.2 artikuluan ezarritakoaren arabera, honako hauek dira hitzaumena suntsiarazteko arrazoiak:

- a) Hitzaumenaren indarraldia amaitzea hura luzatzeko erabakirik hartu gabe.
- b) Sinatzaile guztien ahobatezko akordioa.
- c) Sinatzaileetako batek bere gain hartutako betebeharrak edo konpromisoak ez betetzea.
- d) Hitzaumena deusez deklaratzeko duen erabaki judiziala.
- e) Aurrekoen bestelako edozein arrazoi dela-eta, hitzaumenean edo beste lege batzuetan aurreikusia.

Era berean, hitzaumena suntsiarazteko arrazoiak izango da alderdietako edozeinek esanbidez salatzea, eta Jarraipen Batzorde Mistoak bildu beharko da hitzaumenaren jarraipenari buruz erabakitzeko.

Zortzigarrena.— Ondorio aplikagarriak hitzarmena bete ezean.

Alderdietako batek bere gain hartutako betebeharrak betetzen ez baditu, gainerako alderdietako edozeinek errekerimendu bat helarazi ahal izango dio betebeharra bete ez duenari, epe jakin batean bete ditzan betegabetzat jotzen diren betebeharrak edo konpromisoak. Errekerimendu hori Jarraipen Batzorde Mistoari jakinaraziko zaio. Epea igaro eta ez betetzeak irauten badu, errekerimendua igorri zuen alderdiak beste alderdi sinatzaileei jakinaraziko die badagoela hitzarmena suntsiarazteko arrazoia, eta hitzarmena suntsituta dagoela ulertuko da.

Ez-betetzeak abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren manuren bat urratzea badakar, aurreko lerrokan aurreikusitakoak ez die kalterik egingo alderdietako edozeinek lege horren arabera abiaraz ditzakeen lege-ekintzei.

Hitzarmena betetzen ez duen alderdiak ez dio beste alderdiei kalte-ordainik eman beharko hitzarmeneko betebeharrak ez betetzeagatik edo hitzarmena azkentzeagatik, hirugarrenen aurrean duen erantzukizunari kalterik egin gabe.

Bederatzigarrena.— Araubide juridikoa.

Hitzarmen hau administrazio-izaerakoa da, eta urriaren 1eko 40/2015 Legearen Atariko Tituluaren VI. Kapituluan xedatuak arautzen du. Alderdiek konpromisoa hartzen dute hitzarmen hau lege horretan aurreikusitako izapideetara benetan egokitzeko aplikatu behar zaien guztian elkarri laguntzeko, bereziki, hitzarmenak sinatzeko nahitaezko izapideei eta horien ondorioei buruzko 50. artikuluari dagokionez.

Hamargarrena.— Jurisdikzio eskuduna.

Hitzarmen hau interpretatzean eta betetzean sor daitezkeen auziak Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioaren ardurapekoak eta eskumenekoak izango dira, bosgarren klausulan aurreikusitakoari kalterik egin gabe, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearekin bat etorritik.

Eta aurreko guztiarekin ados daudela adierazteko, alderdiek agiri honen bi ale sinatu dituzte hasieran adierazitako tokian eta egunean.

Egoitza elektronikoa, 2026ko maiatzaren 19a.

Gizarte Segurantzako Institutu Nazionala,

Zuzendari nagusia,

MARIA DEL CARMEN ARMESTO GONZÁLEZ-ROSÓN.

Itsasoko Gizarte Institutua,

Zuzendaria,

ELENA MARÍNEZ CARQUÉS.

Euskadiko Autonomia Erkidegoaren izenean,

Eustateko zuzendari nagusia,

BELÉN MUÑIZ VILLANUEVA.

ERANSKINA

GSIN-K ESTATISTIKA-ZERBITZUARI EMANDAKO INFORMAZIOA

PENTSIODUNAK

Kolektiboa:

– GSIN-k eta IGIk kudeatutako Gizarte Segurantzaren sistemako kotizaziopeko pentsioen titularrak.

Ateratzeko irizpideak:

– Geografikoa: AEko probintzia-zuzendaritzek kudeatutako pentsioen titularrak edo bertan bizi direnak, beste probintzia-zuzendaritza batzuek kudeatuta.

– Egoera:

- Altan dauden prestazioak.

- Lagapenari dagokion hiruhilekoan zehar baja emandako prestazioak.

– Prestazio motak: Erretiroa, ezintasuna, ezintasunetik eratorritako erretiroa, alarguntasuna, zurtasuna eta senideen aldekoa.

Lagatako datuak:

– Identifikazio-datu osoak, afiliazio-zenbakia (NAF) eta IFZ ere.

– Digtu bateko pentsio mota: erretiroa, ezintasuna, ezintasunaren ondoriozko erretiroa, alarguntasuna, zurtasuna eta senideen aldeko pentsioa.

– Prestazioaren ondorio ekonomikoen data.

– Erretiro-pentsioetan egiaztatutako kotizazio-urteak.

1.– Identifikazio-datuak.

1.– Afiliazio-zenbakia.

2.– Identifikatzaile-mota.

3.– NAN, AIZ edo pasaportea.

4.– 1. Abizena.

5.– 2. Abizena.

6.– Izena.

7.– Sexua.

8.– Jaiotze-data.

2.– Bizileku-datuak.

9.– Helbidea.

10.– Herria.

11.– Probintzia.

3.– Aldagai osagarri orokorrak.

12.– Administrazio-egoera (alta edo baja).

13.– Altaren ondorio ekonomikoen data.

14.– Bajaren ondorio-data.

15.– Bajaren arrazoia (*).

16.– Pentsiodun mota (erretiroa, ezintasuna, ezintasunaren ondoriozko erretiroa, alarguntasuna, zurtasuna eta senideen aldeko pentsioa).

17.– Araubidea.

18.– Hileko zenbateko gordina.

4.– Erretiro-pentsiodunen aldagai bereziak.

19.– Egiaztatutako kotizazio urteak (**).

(*) Bajaren arrazoia.

Bi kode adieraziko dira: heriotzagatik edo beste arrazoi batzuegatik.

(**) Egiaztatutako kotizazio-urteak (guztira).

Agertzen den datua emango da, hobariak barne har ditzakeena.

35 urte baino gehiagoko kasuetan, 35 ager daitezke, gerta baitaiteke gehiegizkoa ez izatea garrantzitsua prestazioa mantentzeko.